


## Altza

Larraitz Garmendia (fnoa.: 391267)

**G**oiz Argik antolatutako ikastaroak martxan dira. Orain arte Altzako Los Boscosen egon badira ere, hemendik aurrera Intxaurrendoko Notre-Damen topatuko ditugu. Ikastaroak bi ziklotan banatu dira. Lehena 16 urte-tik gorakoentzat, 1. Mailako Lanbide Heziketa ikasketak besterik eginak ez dituztenentzat. Ziklo hau urriatik ekainera eskainiko da. Sukaldaritza, jostungintza eta eskulana ikasi ahal izango dituzte besteak beste.

Bigarren zikloan etxerako laguntza ikastaroak eskainiko dira. Urria-martxoan emango dira, eta apiriletik ekainera Donostialdeko zentru ezberdinetan praktikak egiteko aukerarekin. 19-30 urtekoek parte har dezakete, Lanbide Heziketako 1. maila besterik egin ez dutenek, eta baita 30 urte-tik gorako emakumeek. Izene-mateak 421661 telefonoan. Epea iraila arte dago zabalik.

# Argi ibiltzeko ikastaroak



Urriatik ekainera bitartean sukaldaritza edo eskulangintza bezalako ikastaroak izango dira.

## Herrera

# Gazte Txokoa martxan


**b**idebietako Gazte Txokoak martxan jarri du udako egitaraua. Hilaren 11n, piragua eta arraun saioak egingo dira badian. Arratsaldean Uliara ibilaldia egingo da. Datorren astean Gaztezinema, Gazte Txoko Irekia eta puenting saioa izango dira, azken hau Kon-

tadores zentroaren eskutik.

Uztailaren azken bi aste-etan kirol ezberdinak praktikatzeko aukera emango zaie gazteei Zurriolan: piraguak, esgrima, arku tiroketa, eskalada, ur azpiko tailerrak... eta eguna bukatzeko gaupasa izango da Miren Bihotza Ikastolan.

Azpimarragarria da Leze kobazulora egingo den espeleologia irteeraldia, eta Pasai Donibanen antolatuko diren motor txikiak. Uztailaren 30ean udako jaia izango da. Uda bukatzeko, abuztuaren 4-8 bitartean Goizuetako Axerrebordara irteera egingo da, 5.000 pezetaren truke.

**IPURU S. L.**  
ERAIKUNTZAK



Askatasunaren Hiribidea, 7 - 7º B • Tfnoa.: 42 41 21  
20004 DONOSTIA

**EDARITEGIA**  
**JATETXEA**

**OTARTEKOAK**  
**PINTXOAK**

Fermin Calbeton 4  
Tfnoa.: 42 25 62  
DONOSTIA



**IZKINA**